

JO DU KUKU MUTUAK
ETA PATRIKERAN... ZULUAK!!!
S.O.S.KA SOSAK
SAMAN ESTU SOKAK
ITO EZ, BAINA BAI LARRITU...
KORRITUAK BAITIRA GORRITU!
AIII! TXINTXIN-DIRU,
GUTAZ ERRUKITU!
BANKUAN BI IJITU...
ETZANDAKOAK KARTOIAK DITU.
BANKUAN BI MEDIKU...
HILE AMAIERAK EZ DITU BI DIGITU!
ZORROAN ZORRA ETA ZORRIA
ASKORENTZAT, KALE GORRIA...
EGOERA NEGARGARRIA!

ETORRIKO AL DA ZORIA!
IZANGO DA, BAI, IRRIA!
BAKEA MEREZIA,
JOANA ETORRIA,
ASKATASUN EGARRIA!
GIZEN ZEIN ARGAL TXERRIA,
ZABAL ZEIN ESTU GERRIA....
BETI-BETI...

GORA EUSKERA!

ETA GORA EUSKAL HERRIA!

(Manu Arrasate)



2010ean Hi, artista, hi! lehiaketan saritua

URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA

ABENDUAK 30 OSTIRALA 22:00ETAN
Sarrera: 8 euro (Berbarotarrek 5 euro)

SUSTRAI COLINA
MAIALEN LUJANBIO
JON MAIA
JULIO SOTO



PLATERUENA
Durangoko Kale Antzokia

3ER
BAR
elkartea

Hamabost urte badira
behintzat gure akorduan,
Urteko Azken Saioa
San Agustinen orduan.
Gero Plateruenera
jauzia egin genduan.
Beti da hogetamarra
ta beti da Abenduan,
prestaketa egiten da
lehenengo mahai inguruan:
bertsolariak gogotsu,
gaijartzailea zerran,
Peñaren usoak tripan
eta txoriak buruan...
Halantxe ateratzen da
ateratzen den moduan.
(Unai Iturriaga)

Doinua:
Habanera.



Azaroaren 16an Haur Literatura Aretoa martxan jarri genuenetik, Zornotza, Elorrio, Zaldibar eta Durangoko 4.600 ikasle inguru pasatu dira bertatik. 2-3 urtetik 12ra bitarteko ume eta gaztetxoak izan ditugu liburu artean murgilduta, Galtzagorriren basoa jolasean gozatzen eta hainbat ekintzetan parte hartzen.

"Zertan oinarritu zara liburu hau idazterakoan? Zenbat liburu idatzi dituzu orain arte? Zergaitik aukeratu zenuen pertsonai hori liburuko protagonista bezala?" Ehunka galdera izan dituzte gaztetxoek, aretora hurbildu diren idazleei egiteko.

Eta idazleak galdera guztiei erantzuteko prest; liburuen gainekoak, idazle izatearen ingurukoak, pertsonalak, bitxikeriak...

Karrika antzerki taldeak ere aurten eskaintza interesgarriak aurkeztu dizkigu. "Kontutruk" ipuin antzeztuetan Urtaroak gaia landu dugu

3-6 urte bitarteko umeekin eta "Eguzkiaren bila" antzerkian, aldiz, gizakiok

bizitzarako behar ditugun errekurtsoen erabileraren hausnarketatxo bat egin dugu 6-10 urte bitartekoekin.

Aretoa 4.600 ikasle, 16 ikastetxe, 211 ikasgela, 24 idazle, 21 antzerki saio, 34 ipuin antzeztu saio, 183 erakusketa girotu eta 300 liburutik gora izan dugu. Azokan ere egon gara 35 ikuskizun, aurkezpen eta bestelako ekintzekin. Guztion gozagarri izan dira 6 aste hauetan eta azkenean, aurtengo aretoak atekak itxiko ditu datorren urteak ekarriko duenaren zain. Bitartean, liburuekin gozatzen jarraituko dugu!



JOSTAILUA JOLASEAN...

Asteon antolatu dugu Durangon Jolasen txokoa. Etxeko txiki eta nagusiak jolasean jarri ditugu euskaraz kaleratutako hainbat mahai jolasekin. Aisia euskaraz gozatu eta euskaraz argitaratu eta ekoizten denaren berri izan zuten.


Jolasak paper garrantzitsua jokatzen du haurren bizitzan. Besteak beste, bere ekintza garrantzitsuena da; denbora, gogo, energia eta ilusio gehien eskaintzen diona. Jostailua, jolasaren prozesuan erabiliko dugun tresna da. Neurri horretan, jostailuak irudimena estimulatu behar du jolaserako mekanismoak indartu eta aberasteko.

Horregatik da hain garrantzitsua jostailuaren hautaketa on bat, eta gabon hauetan hainbat buruhauste ekiditeko asmoz, hemen aholku batzuk:

- Jostailuak opari bat izan behar du eta ez inposaketa bat. Haurraren gustu eta lehentasunetik abiatu beharko dugu.
- Jostailuak haurraren adin eta beharretara egokitu behar du.
- Haurrengan berezkoak diren ezaugarriak sendotzeko, eta osagarriak izan daitezkeen joerak lantzeko ere izan daiteke jostailua.
- Honek segurua izan behar du, CE markak beharrezko segurtasun arauak betetzen dituela adieraziko digu.
- Sexu eta rol estereotipoak errepikatzen ez dituzten jostailuak bultzatu behar ditugu.
- Jolas belikoak edo jarrera bortitzak bultzatzen dituztenak baztertu, eta elkertasuna, komunikazioa, kooperazioa eta konfiantza sustatzen dutenak bultzatu.
- Bizitzako eredu anitzak bilatu. Famili eredu ezberdinak, emakume eta gizon eredu ezberdinak, eta kultura eredu ezberdinak sustatzen dituzten jolasak sustatu.
- Jostailu garestiena ez da hoberena, haurraren berezko ezaugarrietara ongien egokitzen dena, baizik.

Azkenik...

Jakin badakigu euskaraz ekoiztutako jostailu ugari daudela, beraz aprobeitza dezagun eta jolas gaitezen euskaraz!



GUIREAN EUSKARAZ

Urriaren 17an jarri da aurten proiektua martxan eta hasierako nondik norakoen berri izateko, proiektuko hezitzaileak diren, Amagoia, Igor eta Garazi elkarrizketatu ditugu.

120 ume eta gazte apuntatu dira aurten proiektuan, nolakoa izan da hasiera?

Hirurak: Hasiera gogorra izan da, ume asko apuntatu dira eta leku falta daukagunez, egun batzuetan zoratzekoa izan dela esan genezake.

Nola banatzen zarete?

A. eta G.: Txiki eta ertainekin lehenengo orduan hainbat ekintza egiten ditugu eta bigarrenean, etxeko lanak egiten laguntzen ditugu.

I.: Lehenengo orduan nagusienei etxerako lanak egiteko errefortzuak ematen dizkiet eta bigarren orduan berriz, ertainekin aritzen naiz.

Nondik etorritako ume eta gazteak dira?

Hainbat tokitatik etorritakoak ditugu: Espainia, Italia, Katalunia, Errumania, Txina, Pakistan, Maroko, Kenya, Senegal, Ghana, Nigeria, Sahara, Bolivia, Ecuador, Argentina, Colombia, Brasil, Nicaragua ...

Gaur arte, zer nolako esperientzia izan da?

Hirurontzat esperientzia oso aberasgarria da, egunero mila abentura izaten dugu!

Zer da proiektu honetatik gehien gustatzen zaizuen?

Hirurak: Dagoen aniztasuna. Politika da herrialde eta kultura desberdinetako umeak beraien bizipenak konpartitu eta beraien artean ondo konpontzen direla ikustea.

Baita ume eta guraso batzuek benetan euskara ikasteko egiten duten ahalegina eta jartzen duten gogo eta interesa.

Honez gain, beraien egunerokotasunean dituzten arazoak alde batera uzteko balio diela ikusteak poztasun handia ematen digu. Hezitzaile izatez gain, batzuetan entzule eta "kontzeju emaile" paperak ere egiten ditugu.

Eta gutxien?

Hirurak: Kasu batzuetan, ez dutela behar beste baloratzen proiektu honen bidez ematen zaien aukera.

Zein egitasmo daukazue urtariletik ekainera bitartean?

Proiektuarekiko interesa duten gurasoekin harremana sendotu nahi dugu eta horretarako, sukaldaritza saio batzuk egingo ditugu. Herrialde bakoitzeko jaki batzuk prestatu, Euskal Herrikoak irakatsi ... Ezagutza truke bat.

Bestetik, gazteen taldea finkatzean etxerako lanak egiteaz gain, irteera eta ekintza ugari egin nahi ditugu beraiekin.

EUSKARA ZERBITZUA EUSKARA TREBATZE IKASTAROA

3 hilabete igaro dira Udaleko 45 langilerekin trebatze ikastaroak antolatu genituenetik. 3 taldetan banatu ditugu, batez ere, lanpostuen zereginen arabera. Beharbada goiz da emaitzak ikusteko baina aldaketak ikusten hasi gara:

Izaskun Gallastegi (Udal Euskaltegiko irakaslea): Ikastaroarekin dugun asmoa zera da: egoeraren diagnosis egin, plana eta azkenik balorazioa eta aurrera begirako hobe-kuntza plana. Langileen aldetik partehartze handia izan da eta, orokorrean, aldeko jarrera erakutsi dute. Hausnartzeko bidea eman dugula uste dut eta ikusten da batzuen aldetik hizkuntzarekiko daukaten sentsibilizazioa. Ahalegina egiten ari dira, euren eguneroko lanean aurrerapausuak ematen: idatziak sortzen, zuzentzen, hobetzen... Ikastaroa emaitzak ematen hasi da eta guretzat hori balorazio positiboa da.

Ekain Muñoz (Diru bilketa): Ni gustura joaten naiz eta garai batean ikasitakoak freskatzeko oso ondo datorkit. Gainera, testuak idazteko garaian emandako jarraibideak oso erabilgarriak zaizkit. Beste alde batetik, klasearen lehen zatia, ahozkoa lantzekoak, gutxiago ematen didala iritzi diot. Lehendik ere, klasean elkartu garen "koadrilak" gure artean




euskaraz egiteko dezenteko ohitura dugu. Zailtasun gehien idazteko garaian dut eta huraxe jorratzea onena.

Aintzane Bengoetxea (Bulego Teknikoa): Klaseak oso eramangarriak dira. Guk behintzat arauen errepasoa behar izan dugu; adibidez, zein den eskutitz edo iritzi artikulua baten eskema, nola agurtu, nola hasi, datak nola ondo jarri, puntuazio marken arauak, maiuskulak, minuskulak, koma-txoak eta gidoiak noiz erabili...

Ines Irigoras (Astarloa Kulturgintza): Esaldi bakarrarekin laburtuko dut ikastaroa: euskararekin berriro konektatu dut.

Igor Zorrakin (Bulego Teknikoa): Udaletxeko langile askok itxaroten zuten ikastaroa edo trebatze prozesua da. Euskararekiko langileen arreta berpizteko balio izan du, eta emaitzak laster ikusiko dira. Ez dira hain zuzenak momentu honetan, baina ate barruko lanean ari gara eta, ondorioz, hurbil dagoen etorkizunean herritarrek jasoko dute.



Pello Añorga gure artean izan dugu, nagusiei ipuinak zelan kontatu irakasten. 8 orduko ikastaroak oinarritzko irizpideak ezagutzeko baino ez du ematen.

Ipuin kontaketa munduan murgilduz gero, orduak eta orduak beharko gennituzke.

Pello Añorga ipuin kontalaria, idazlea eta irakaslea..., ogibide ugari. Pello berdina agertzen da denetan?

Ogibide ugari, bai; baina, amankomunean gauza bera: komunikatzeko eta magia sortzeko gogo; mundu imajinarioetan errealtatea interpretatzeko irrika; norberarengan "maixu-maixtra" aurkitzeko nahia...

Ikastaroaren gaineko balorazioak irakurrita, argi dago bertan egondakoak oso gustura geratu zirela. "Zoragarria, hezitzaile baten zako ezinbesteko ikastaroa, laburregia..." dira, besteak beste, bota dizkizuten loreak. Errazagoa al da ipuinak helduei kontatzea?

Ez da ez erreazagoa eta ez zailagoa, bazik kontatzeko prest egotea, gogo

izatea, gardentasunez aritzea, benetan agertzea...

Berbarok urteak daramatza Haur Literatura Aretoa antolatzen. Helburu nagusia haur eta gazteen artean irakur zaletasuna bultzatzea da. Baina, inpresioa da formula hori asmatu barik dagoela oraindik. Umeek gus-tura entzuten dituzte ipuinak. Baina nerabeek?, entzun eta irakurtzean egongo al da gakoa? Edo ez dituzue idazleek istorioekin asmatu?

Nerabeak haurrak bezala egoten dira istorioak entzuten; gertatzen dena da, adin bat dutela helduon kontra erbelatzeko, saltzen dizkiegun ipuinen kontra aritzeko, katarsia egiteko,... Baina, asmatuz gero, haurrak eta helduak bezain liluratuak egoten dira.

Otsoak Txano-gorritxoren amona jaten du, ehiztariak otsoa tiroz hiltzen du edo igela printze bihurtzen da eta printzeak eta printzesak betirako zoriontsuak izango dira.


Bai, hala da; baina gauza bat esango dizut: gaur egun ere, gaurko postmodernitatean ere, Otsoak jarraitzen duela Txano Gorritxo irensten, eta printzeak eta printzesak zoriontsuak izaten (ez beti, jakina!). Gaur egun ere, ez al da Olentzero existitzen? Eta Bizar Zuri? Gaur egun ere, figura arketi-

pikoak beharrezkoak ditugu bizitzeko. Orain, hori bai, sortzaileon lana zera da: sinbolo zaharrak berritzea eta berriak asmatzea. Nik ez dut zertan arketipo zaharrak baztertu. Alderantziz, arketipo zaharrak lagun, berriak asmatu, eta gaur egungo errealtatea saiatu areago argitzen.

46. Liburu eta Disko Azoka, 2011. urtean argitaletxeek liburuaz gainezka dituzte standak. "56. Liburu eta Disko Azokan" zer aurkituko dugu? E-book edo liburu digitalek pape-rezko liburuak ordezkatzeko dituzte? Aurten ere denetik egongo da, baita liburu digitalak ere. Hori ez al da aberastasuna? Halere, liburu digitalek ez dut uste ordezkatzeko dutenik liburuen papera (materiala) eta jokatu duten "papera" (artean). Paperak, zenbat gauzetarako, askatasun gehiago ematen du; "paper" gehiago jokatzeke, alegia. Papera ez da, inondik inora, murritzatzailea, osagarria baizik.



EUSKARAK 365 EGUN!



Durandaldea kartelez bete nahi genuen eta egin dugu! Denon artean lortu dugu!

Egunero euskaraz bizitzeko eta euskararen 365 egunak ospatzeko aldarria kaleratu dugu!

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!

Norbait gogoz geratu bada oraindik aukera dago. Kartelak hartu, argazki bat atera eta bidali gure e-postara edo pasatu Berbarotik eta geuk aterako dizugu argazkia.

Argazkiak eta bideoa ikusgai:

www.berbaroelkartea.di-da.com/euskarak-365-egun



Laguntzaileak:

